

BEGIEN BAKARRIZKETAN

Maite Agirre Mujika, 15 urte

Beasain

Zerua ilun dago, eguzki errainuek ez dute indarrik hodei sendo eta beltzak zeharkatzeko. Txorien txorrotxioak ere goibel dirudi, paisaia gris honetan. Halako batean, euri tantak goxoki hasi dira han-hemenka jausten, zaparradari hasiera emanez. Euria nire azal gogor eta zimurtsua ferekatuz, euriaren musika isila entzunez, lasaitasuna da nagusi.

Une hau, ordea, milaka zatitan apurtu da pauso urduri batzuen oihartzunarekin, astintzen nauen haize bortitzak eramango balu bezala. Nire magalean eseri dira biak, arnas estuka eta dardarka. Begietara so daude, batak bestearen pentsamendua irakurri nahian, irribarre erdi bat ezpainetan zizelkaturik dutela. Ur tantoak emeki irristatzen dira bien azal disdiratsutik, baina ez dutela antze-man dirudi, begiekin hizketan ari baitira, hitzek lekurik ez duten solasean. Pixkanaka, elkarrizketa mutu honek gorputzaren nahiei lekua eman die, ezin eutsizko modu oldarkorrean, alderdi hotz harri berotasunaren sugarra piztuaraziz.

Kanpoan, tximista eta trumoiien eztabaidak jarraitzen du, maitaleen arnasestua pausatzen doan heinean. Lotsati, elkarri begiratu diote, egoeraz bat-batean jabetu balira legez.

Mutilak esku dardartia, neskatilaren masail gorritzuetan ezarri du, leunki laztanduz. Orduan, sakeletik laban txiki bat atereaz batera, bihotz itxurako marrazki trakets bat egin du, nire azala zartatuz.

Banandu aurretik, betirako begirada bat eman diote elkarri, pauso motelez urruntzen dihoazen bitartean.

Berriro baretasuna da nagusi inguruan, baina kezkaz josita nago oraingoan, erantzunik ez duten itaunez. Zergatik entregatzen dira honela, putzu sakon batean urperatuko balira bezala, beste orok garrantzia izpirik ez duelakoan? Zein indar da beraien zantzua baino sendoagoa? Eguzki izpiek nire abar gazteak laztantzen dituenen sentitzen dudanaren antzekoa al da? Zer da gizakiak, denaren gainetik dauden horiek, edozein oztopo gainditzeko gai direnak, ezinezkoena lortzeko jaiokak diren berdinak, ezerezeroa makurrarazten dituen indar hori, txontxongilo baten antzera...?

Goizean ekialdetik zetozen laino mehatxatiak ikustearekin batera jakin dut. Eta hala izan da, orain dela egun urri batzuk entzundako urrats bizkorrak gerturatzen nabari baitut. Baina neska musugorria iritsi da soilik, aurpegia keinu ezohiko batez desitsuraturik zuela, ikusten zuenak min emango balio legez.

Nire aterpera heldu orduko, kolpean gelditu da aurrean duenari behatuz. Zoko guztiak begiez miatu ditu; azkenik, benetan desiratzen zuenera gidatu ditu bere bi perla urdinak: nire gainazalean baldarki irudikaturiko bihotzera.

Malkoak masailean behera labaindu zaizkio, aspaldian gordetako samin guztia irristatzen ziren malkoekin joango delakoan. Hatz dardaratiak marrazkira biderarazi ditu, baina ikutzera ausartu gabe, behatzak bertan pausatze hutsak erreko balu bezala. Lurrera jausi da, indarrrik ez balu lez, gorputz guztia astintzen dion gelditu ezineko negarrean. Supituki, zutitu egin da, iruditxoari azken begiratua eman eta biratu egin da, pauso motelez urrunduz.

Aldentzen delarik, xirimiri arin bat hasi da emeki baina etengabe, egun laiotz honi itxura ilunago bat emanez, izkin guztiak ur freskoz bustiaz.

Aldentzen dihoan orban arre harentzat, ordea, ez du garrantzirik, ezerk ez du garrantzirik, arima bustia baitu, egun hau bezain ilun, barnean dizdizka ari den gar txikia gutxinaka hazten doan arren.

Bere abiatzearekin batera bakardadearen itzalak dena bereganatu du, oihartzun iraunkorraren gisa. Ni ez naiz izan, ostera, ikusle bakarra. Itzalen aterbean babesturiko adineko gizon bat hurreratzen doa, nire ondora iritsi arte, neskatila bere barnean amildu den leku berberera, bi ikatz koskorrak niretzako zentzurik ez duen bihotz zantarrari so. Harrizko aurpegia etsipeneko imintzio batean zaitu da, burua tristeki makurraraziz, euriaren mantu

goxoan desagertzen delarik, niretzat harrotza zen hura baleki bezala.

Egunak igaro ahala, hori-gorritz jantzi naiz, eta biluzten hasia naiz jada. Inguruan denak indarra galtzen du astiro, hotzaren nahien menpe, baita nire azaleko zauriak ere, denboraren sendagai garaitezinaren poderioz.

Baina arrastiri honek usain berezia du, zalantza-
ren usaina, itsaropenaren usain sarkorra. Gutxira, pauso ezagun batzuk aditu ditut hurbiltzen. Aldiz, ez da azkenekoz ikusi nuen neskato beldurtu eta ahula, hura oraingo begirada sakoneko emakume-aren itzala besterik ez zen eta. Pauso irmoz dator, burua beti tente, nire altzora, aspaldi ikasitako lana bailitzan. Berreraikitako gaztelua, ordea, mutilaren helduerarekin birrindu da, hondar xumearen pare. Gaztearen oinatzek ziurrak eta sendoak dirudite, bere begitarte izutuak salatzen duen arren. Elkartzean, galderaz josiriko begiradei eutsi diete tinko, begien bakarrizketan murgildurik. Nahiz eta hitzak beharrezkoak ez izan, erantzun gabe geldituriko itaunak zezeltzen hasi dira, milaka pieza dituen puzzle bat eratzen.

Zerua belzten doan neurrian, piskanaka bien bisaian irribarre samur bat hazten doa, gozoki-
ro. Ustekabean, mutikoak, esku zalantzatia neskatar-aren sabelera gidatu du, bertan pausatuz. Burua gel-
diro altxatu du, neskaren begi harritu eta aldi bere-
an, lasaituekin aurkitu arte. Mutilak ulerpenezko
begirada ezti-az irri egin dio, eta besarkada epel
batean urtu dira, samurtasunez.

Urrutiratzen zihozela, neskatxa gelditu egin da, azkeneko begirada niregana biderazteko, ondoren mutilak egin duen antzera. Baina ez daude nire erro biluztuei beha, ezta zaharkituriko marrazki esanguratsuari. Iraganari so daude, batu dituen lehenaldiari.

Orduan, ilargi berriaren argitan, agurea hurre-ratu zait, errenka txikian. Irribarre zabal batez behatu nau, eta asperen labur bat egitearekin batera, nire nahasmena konprenituko zuelakoan, urte-en aztarna nabari zaion ahots apal eta erlatsez adeitsu erran dit:

– Maitasuna, lagun, maitasuna...